

**PUBLIKOA, EUSKALDUNA ETA PROPIOA HELBURU**  
**Hezkuntza lege aurreproiektu honi EZ, legea langileekin eraiki**

Gaur, hemen, bildu garen sindikatuak hezkuntza lege aurreproiektu honi EZ esaten diogu. **EAEko Hezkuntza lege-aurreproiektuaren zirriborroa aztertuta**, egungo hezkuntza-eredu duala betikotu eta gainditze bidean jartzen ez duela baloratuta, sare publiko bakar, euskaldun eta propiorako bidea egin beharko lukeen legea behar dugula adierazten dugu, sare publikoa baita aukera-berdintasuna, kohesio soziala eta euskalduntze prozesua bermatu behar dituen. Horregatik, hurrengo aldarrikapenak egin eta legean jasota gera daitezen exijitzen dugu:

**Legean espresuki jaso beharreko aldarrikapenak**

**1.- Publikoa ardatz izango duen hezkuntza legea nahi dugu.** Egungo hezkuntza-sistema duala gainditu behar da, interes partikularrei planto eginez eta Euskal hezkuntza-sistema publiko eta propio baterako bidea sustatuz. Eskola publikoa hezkuntza-sistemaren ardatz gisa kokatu behar da horretarako, egiturazko aldaketa, neurri zehatz eta inbertsioak jasoz: azpiegiturak hobetu eta berriak sortzea, soldaten eguneratzea eta soldata arrakalekin bukatzea, publikazio prozesu sendoak ezartzea, langile guztien lanpostuak bermatzea, edota pribatizaturiko zerbitzuen lehengoratzea -azpikontratako langileak subrogatuz-. Bestetik, Haurreskolak Partzuergo Publikoa Hezkuntza Sailean integratuko dela jaso behar du, hau doakoa izanik eta zerbitzua unibertsalizatuz.

**2- Segregazioari aurre egin eta gizarte kohesioa bermatuko duen hezkuntza legea nahi dugu.**

Sistema dualak sortzen duen segregazioa ekiditeko egiturazko aldaketak zein neurri zehatz eta eraginkorrak jaso behar ditu lege honek. Besteak beste:

- Planifikazioan euskal eskola publikoa erdigunean jarri eta lehenetsi.
- Itundutako sareari betebeharren kontrol mekanismo zorrotzak eta ikusgarriak ezarri.
- Matrikulazio bulego bakar eta erreal bat bideratu.
- Familien eskola erabakitzeko eskubidea ezin da gizarte kohesioaren gainetik ezta aukera berdintasunaren gainetik egon.
- Planifikazioan eragingo duten neurri zehatzak ere jaso behar dira, euskal eskola publikoa eskola maparen erdigunean jarri eta honen eskaintza lehenetsiz.
- Kuotak kobratzeko debekua jasotzeaz gain, doakotasun erreala bermatzeko neurri zehatzak abian jartzea jaso behar da legez; gutxienez ikuskatzaile talde baten sorrera eta auditoritza-unitate sendo batena. Finantzazio publikoa jasotzen duten ikastetxeek bere kontuak publiko egiteko obligazioa izango dute, azpiegituren ordainketa nola egingo den zehaztuz eta eskola guztientzat pareko irizpideak ezarriz. Horretaz gain, sindikatu, guraso elkarte eta alderdi politikoez osatutako gardentasun mahai baten sorrera.

### **3.- Publifikazio-marko eta araudi orokor eta adostua ezartzea nahi dugu.**

Titulartasun pribatuko ikastetxeetako hezkuntza-komunitateak sare publikoan integratzeko erabakia gauzatzeko prozedura eta bertako langileak subrogatzeko klausula jasoko du legeak, prozesu hau alde sozialarekin aurretiaz negoziatuta.

### **4.- Hezkuntza lege propioa nahi dugu.**

Horretarako, EAEen hezkuntzan erabateko eskumenak eskuratu behar ditugu, besteak beste, langileria propioa izateko. Euskal Herriko gainontzeko lurraldeekin izango duen harremana egituratuko du legeak. Horretaz gain, euskal curriculuma erabakitzeko eskumena EAEen egongo dela eta curriculum hau hezkuntza-komunitatearen parte hartzearekin garatu eta hezkuntza-sistema osoan aplikatuko dela jaso behar du legeak. Curriculumaren erreferentzia markoa Euskal Herria izango dela jaso beharko du legeak, curriculuma Espainiako gobernuaren aurrean defendatzeko konpromiso espresoarekin batera.

### **5.- Inbertsio eta baliabide nahikoa izango dituen hezkuntza legea nahi dugu.**

Hezkuntzan inbertsioa handitzea legez jaso behar da, BPGren %6ra iristea helburu izanik datozen 3 urtetan eta Europako batezbestekora parekatzea legean jasoz.

### **6.- Euskara erdigunean jarriko duen Hezkuntza legea nahi dugu.**

Euskararen murgiltze eta mantentze sisteman oinarrituriko ikas-eredu orokortu eta inklusibo bakarria behar da eta hizkuntza ereduak desagerrarazi behar dira; Lanbide Heziketan barne. Euskararen presentzia bermatua egon behar da eskolako jarduera guztietan (jantokian, eskolaz kanpoko ekintzetan, etab). Horretara iristeko trantsizio bat bermatu behar du legeak eta horretarako: langile kolektibo guztiak euskalduntzeko planak ezarri behar ditu legeak.

### **7.- Betebehar eta kontrol mekanismo zehatzak dituen Hezkuntza legea nahi dugu.**

Hezkuntza-sistemaren oinarri gisa honako hauek ezarri behar dira: euskal curriculuma, hezkidetzak, laikotasuna, ekitatea, inklusioa, pentsamendu kritikoa eta parte-hartzea. Oinarri hauek bete beharko dituzte diru publikoa jasotzen duten ikastetxe pribatu guztiek, ituntze-sistema unibertsalarekin bukatuz. Gainera, itundutako ikastetxe pribatuen eskola-ordu eskaintza hezkuntza publikoarekin parekatua izango da, ezin izango dute gainditu. Diru publikoaren parte-hartze eta kontrol publikorako auditoria-unitatearen egitura legea indarrean jartzen denerako osatuko da, hala nola, hezkuntza-ikuskaritza indartzeko neurriak jasoko ditu legeak.

### **8.- Hezkuntza sistema osatzen dugun langile guztion enplegua eta lan baldintza egokiak bermatuko dituen legea nahi dugu.**

Hezkuntzako langileon lanpostuak mantendu behar dira, baita prestakuntza eta lan-baldintza egokiak ere.

Sare publikoan langileen egonkortasun eta kontsolidaziorako prozesuak alde sozialarekin negoziatzeko betebeharra eta ibilbide zehatz bat jaso behar ditu legeak, behin-behinekotasuna %8tik behera kokatzeko. Baita %8tik gorako behin-behinekotasuna errepikatzea ekiditeko neurriak ere.

Itunduetako langileen eta publikokoen lan-baldintzen homologazioa epe jakin batean negoziatzeko betebeharra eta ibilbide zehatza jaso behar ditu legeak.

Langileak birkokatzeko bermedun akordio iraunkorra jasoko du legeak, hau diru publikoa jasotzeko betebeharra izanik.

Langileen sarbideari dagokionez: batetik, sare publikoan gaitasun memoristikoen gaintetik langileen lanerako gaitasuna baloratuko duen EPE eredu berri baterako trantsizioa gauzatzeko betebeharra legez jaso beharko da; eta bestetik, sare itunduan lan-eskaintzen publizitatearen inguruko betebeharra betetzeko prozedura jaso beharko da, aukera berdintasuna, meritu eta gaitasunen arabera sarbide bakarra bermatu bidean.

**9.- Merkatuen interesen gidaritzatik eta enpresa pribatuen negozio esparrutik at egongo den hezkuntza legea nahi dugu.** Azpikontratazio eta privatizazio prozesuekin bukatzeko, batetik, langile publikoak dauden heinean ezingo dira zerbitzuak azpikontratatu; eta bestetik, egun privatizaturiko zerbitzuetan (jangela, garbiketa, eskolaz kanpokoak...) lehengoratzeko prozesuak gauzatzeko direla jaso behar du legeak. Hala eskola publikoetan nola itunduetan, bertako langileen subrogazioa bermatuz.

Botere-korporatibo digitalei mugak ezartzeko klausula jaso behar du legeak; hala, datuen erabilera debekatuz zein software propioa sustatuz eta honetarako 5 urteko trantsizio epe bat ezarriz.

**10.- Hezkuntza lege parte-hartzailea nahi dugu, langileak aintzat hartuko dituen.** Hezkuntza legetik eratortzen diren dekretu eta erregelamendu guztiak alde sozialarekin mahai-negoiztzailean negoziatu behar direla jaso behar du legeak; besteak beste, planifikazio dekretua, ikasleen onarpen dekretua zein ituntzearen dekretua. Ezinbestekoa izango da legearen osaketa prozesuari berari begira langileekin negoziazio markoak ahalbidetzea.

Horregatik guztiagatik, hezkuntza lege aurreproiektu honi EZ esaten diogu eta hezkuntzako langileok gure hezkuntzaren etorkizunean zer esanik badugulako, antolatu ditugun ondorengo mobilizazioetan parte hartzera dei egiten dugu. Mobilizazioak PUBLIKOA, EUSKALDUNA ETA PROPIOA HELBURU lelopean deituko ditugu, "Hezkuntza lege-aurreproiektu honi EZ, legea langileekin eraiki".

Aldi berean, Hezkuntza Legearen behin-betiko aurreproiektuan sindikatuon aldarrikapenak jasoko ez balira, egindako mobilizazio eta greba dinamikak baloratu eta ondoren etorriko den Legebiltzarreko izapidetzan zehar, hurrengo mobilizazio dinamika definituko dugu.

Euskal Herrian, 2022ko urriaren 21ean

**OBJETIVO: PÚBLICA, EUSKALDUN Y PROPIA**  
**NO a este Anteproyecto de Ley de Educación, construir la ley con las trabajadoras y los trabajadores**

Los sindicatos reunidos hoy aquí decimos NO a este Anteproyecto de Ley de Educación. **Analizado el borrador del Anteproyecto de Ley de Educación de la CAV**, creemos que lejos de superar el actual modelo educativo dual, lo perpetúa. Así, manifestamos la necesidad de una ley que permita avanzar hacia una red pública única, euskaldun y propia, que garantice la igualdad de oportunidades, la cohesión social y el proceso de euskaldunización. Por lo tanto, hacemos las siguientes reivindicaciones y exigimos que se recojan en la ley:

**Reivindicaciones a incluir expresamente en la Ley**

**1.- Queremos una Ley de Educación que tenga como eje la escuela pública.** Es preciso superar el actual sistema educativo dual, haciendo frente a los intereses particulares y promover el camino hacia un sistema educativo vasco público y propio. Para ello, la escuela pública debe ser el eje real del sistema educativo, y es necesario encauzar un cambio estructural, realizando las inversiones necesarias y estableciendo medidas concretas: mejora de infraestructuras y creación de nuevas, actualización salarial y eliminación de brechas salariales, implantación de procesos de publicación sólidos, garantizar los puestos de trabajo de todo el personal, o la reversión de los servicios privatizados -subrogando al personal de las subcontratas-. Por otro lado, debe recoger la integración del Consorcio Público Haurreskolak en el Departamento de Educación, garantizando la gratuidad y universalizando el servicio.

**2- Queremos una Ley de Educación que haga frente a la segregación y garantice la cohesión social.**

Para evitar la segregación que genera el sistema dual, esta Ley debe contemplar tanto modificaciones estructurales como medidas concretas y efectivas. Entre otras:

- Poner a la escuela pública vasca en el centro de la planificación y darle prioridad total.
- Establecer mecanismos de control estrictos y visibles para el cumplimiento de las obligaciones en la red concertada.
- Habilitar una oficina única y real de matriculación.
- El derecho a elegir escuela de las familias no puede estar por encima de la cohesión social ni por encima de la igualdad de oportunidades.
- También deben recogerse medidas concretas que incidan en la planificación, situando a la escuela pública vasca en el centro del mapa escolar y priorizando su oferta.
- Además de establecer la prohibición de cobrar las cuotas, se deben incluir por ley medidas concretas para garantizar la gratuidad real: crear, al menos, un equipo de inspección y una unidad de auditoría sólida; establecer la obligación

a los centros financiados con fondos públicos a que hagan públicas sus cuentas, determinando cómo se realizará el pago de las infraestructuras y estableciendo criterios equiparables para todas las escuelas. Además, se debe crear una mesa de transparencia formada por sindicatos, partidos políticos y asociaciones de padres y madres.

### **3.- Queremos que se establezca un marco y una normativa general y consensuada para la publicación.**

La Ley debe definir un procedimiento para que las comunidades educativas de los centros de titularidad privada que así lo decidan se integren en la red pública, así como una cláusula para la subrogación de su personal, previa negociación de este proceso con la parte social.

### **4.- Queremos una Ley de Educación propia.**

Para ello, la CAV debe asumir plenamente las competencias en materia educativa, entre otras cosas, para contar con personal propio. La Ley articulará su relación con el resto de territorios de Euskal Herria. Además, la Ley debe garantizar que la competencia para la determinación del currículum vasco sea de la propia CAV y que dicho currículum se desarrolle con la participación de toda la comunidad educativa, así como que se aplique a todo el sistema educativo. La Ley deberá establecer que el marco de referencia de dicho currículum se corresponderá con el territorio de Euskal Herria, y mostrar un compromiso expreso de defender dicho currículum ante el Gobierno de España.

**5.- Queremos una Ley de Educación que prevea inversiones y recursos suficientes.** El incremento de la inversión en educación debe recogerse por ley, y se debe recoger que el objetivo para los próximos 3 años será alcanzar la media Europea con objeto de ir dando pasos hacia el 6% del PIB.

### **6.- Queremos una Ley de Educación que ponga el euskera en el centro.**

Necesitamos un modelo de aprendizaje generalizado e inclusivo basado en la inmersión y el mantenimiento del euskera. Del mismo modo, es necesario acabar con los modelos lingüísticos, incluido en la Formación Profesional. La presencia del euskera debe estar garantizada en todas las actividades escolares (comedor, actividades extraescolares, etc.). Para ello, la Ley debe garantizar una etapa de transición y, por tanto, debe establecer planes de euskaldunización dirigidos a todo el personal de los diferentes colectivos del personal de educación.

**7.- Queremos una Ley de Educación con obligaciones y mecanismos de control concretos.** Las bases del sistema educativo deberán ser las siguientes: el currículum vasco, la coeducación, la laicidad, la equidad, la inclusión, el pensamiento crítico y la participación. Estas bases deberán ser de obligado cumplimiento por parte de todos los centros privados que se financien con dinero público, a fin de acabar con el sistema universal de concertación. Además, la oferta de horas lectivas de los centros privados concertados deberá equipararse a la educación pública, no pudiendo superar la misma. La estructura de la unidad de inspección para la participación y el control

público deberá estar completa en el momento de la entrada en vigor de la Ley, que deberá incluir, entre otras, medidas de refuerzo para la inspección educativa.

#### **8.- Queremos una Ley que garantice el empleo y las condiciones laborales adecuadas de todas las personas trabajadoras que formamos el sistema educativo.**

Se deben mantener los puestos de trabajo del personal de educación, así como unas adecuadas condiciones de formación y trabajo.

La Ley debe recoger la obligación de negociar con la parte social todos los procesos de estabilidad y consolidación dirigidos a los y las trabajadores/as de la red pública, estableciendo un itinerario concreto para ello, con el fin de lograr que la temporalidad sea inferior al 8%. Asimismo, se deben establecer medidas para evitar que se vuelva a alcanzar una temporalidad superior al 8%.

La ley también debe recoger la obligación de negociar, en un plazo determinado, la homologación de las condiciones de trabajo del personal de los centros concertados con las condiciones de la red pública, así como determinar un itinerario concreto para ello.

La Ley deberá prever un acuerdo permanente que garantice la recolocación de los y las trabajadoras, siendo ésta una obligación inexcusable para poder recibir financiación pública.

En relación con el acceso de las personas trabajadoras, por un lado, deberá recogerse por ley la obligación de llevar a cabo una transición destinada a establecer un nuevo modelo de OPEs, en el que se priorice la competencia laboral real de las personas por encima de sus capacidades memorísticas. Por otro lado, se debe establecer un procedimiento para dar cumplimiento a la publicidad de las ofertas de empleo en la red concertada, a fin de garantizar un único acceso en igualdad de oportunidades, en función de los méritos y capacidades de cada aspirante.

#### **9.- Queremos una Ley de Educación al margen de los intereses de los mercados y alejada del ámbito de negocio de las empresas privadas.**

La eliminación de los procesos de subcontratación y privatización exigirá que se contemple legalmente, por un lado, la prohibición de subcontratar servicios cuando existan empleados públicos y, por otro, que se revierta la situación en los servicios actualmente privatizados (comedor, limpieza, extraescolares...), con obligación de garantizar la subrogación del personal tanto de las escuelas públicas como de las concertadas.

La Ley debe incluir una cláusula destinada a limitar los poderes corporativos digitales, para lo cual se deberá prohibir el uso de datos y fomentar un software propio, estableciendo un período de transición de 5 años para implementar dicha medida.

#### **10.- Queremos una Ley de Educación participativa que tenga en cuenta a las trabajadoras y trabajadores.**

La Ley debe establecer que todos los decretos y reglamentos que se deriven de la Ley de Educación deberán negociados con la parte social en la mesa de negociación (decreto de planificación, decreto de admisión del alumnado, o decreto de concertación). De cara a la redacción de la Ley, será imprescindible abrir vías y espacios de negociación con el personal.

Por todo ello, decimos NO a este Anteproyecto de Ley de Educación. Y, como los y las trabajadoras de educación tenemos mucho que decir, hacemos un llamamiento para participar en las movilizaciones que hemos organizado bajo el lema **OBJETIVO: PÚBLICA, EUSKALDUN Y PROPIA**. “NO a este Anteproyecto de Ley de Educación, construir la ley con las trabajadoras y los trabajadores”.

Asimismo, en caso de que las reivindicaciones de los sindicatos no se contemplen en la redacción definitiva del Anteproyecto de Ley de Educación, haremos una valoración de las movilizaciones y dinámicas de huelga, y definiremos futuras dinámicas de movilización durante el periodo de tramitación en Parlamento Vasco.

En Euskal Herria, a 21 de octubre de 2022